

UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU

2022

Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Sexualitatea Haur Hezkuntzan

Egilea

Oihane Mentxaka Mugartegi

Gradua

Haur Hezkuntza

Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

5. Genero berdintasuna

Laburpena

Haur hezkuntzan sexualitatea norbere gorputza nahiz gainontzekoena ezagutzean, errespetatzean eta onartzean oinarritzen da, onanismoa, afektuzko plazer unea izanik. Gizartean, "tabu" gisa dagoen alorra da, ondorioz, haurrek sexualitaterik ez dutela bezalako ideia erratua azaleratuta, eta irakasleek zein gurasoek egoera horren aurrean egokitasunez erreakzionatzea oztopatuta, maiz, lotsatzeko zerbait bailitzan hartuta, edo txarto dagoela esanda. Graduako urte guztietan ez da behin ere sexualitatea lantzeko prestakuntzarik izan, haurren garapenaren parte den, eta etorkizunean lanean jardun bitartean aurkituko den fenomenoaren izan arren. DAL batean, praktikan bizi izandako arazo egoera bat ikertu behar izan zen, kasuan kasu: hezitzaile batek 3 urteko haur bati masturbatzerakoan emandako erantzuna, hots; ekintza zuzenean moztu zuen, haurrari gaizki egiten ari zela esanda, eta haurra bere burua izkutatu hasi zen. Ikerketa egiteko, zenbait galdera egin zitzaizkien hainbat profesionali, baita elkarrizketa sexualitatean aditua den bati. Ateratako ondorio nabarmena, irakasleen artean sexualitatearen inguruan zegoen ezagutza falta izan zen. Gai honi dagokion garrantzia aitortu behar zaio, haurrei garapen egoki bat bermatzeko. Haurrak mundua ezagutzeko, bere burua eta ni-a ezagutu behar ditu, bita autonomia eskuratu eta autoestimua nahiz autoirudia eraikitzeko. Gainera, hezitzaile gisa ezagutza anitz behar dira izan, eskainiko den laguntza benetan integrala izan dadin.

2030 Agendaren GIH Ekarpinak

5.en GIH dagokionez; Genero Berdintasuna hain zuzen, hasteko, garrantzitsua da sexua eta generoa ez daudela lotuta jakitea, edo behintzat ez beti. Beraz, ezinbestekoa da sexu identitateari eta genero identitateari dagokien lekua aitortzea. Honetarako, funtsezkoa izanen da nork bere burua naturaltasunez esploratzeko aukera izatea eta gainontzekoena onartzea. Guzti honekin, arau heteropatriarkalak, estereotipo eta rolak hausteari bide ematen zaio, gorputz eta izate ororen errespetua delako oinarria, plazera eta afektua tartekatuta.